

EROSKI-k iragartzen du erkidegoko **milioi bat litro sagardo natural** erosiko duela 2020ko uztakoa



EROSKIren asmoa da botilaratutako sagardo naturalaren milioi bat litro baino gehiago erostea 2020ko uztakoa, zeina udaberri aldera iritsiko baita dendetara. Kopuruei begiratuta, Euskal

Autonomia Erkidegoko sagardo naturalaren saltzaile printzipala da, bai Euskal Sagardoa jatorri izenarena eta bai Gorenak zigiluarena. Iragarri duenez, 2021ean iaz baino %15 gehia-

go saldu asmo du. Ia milioi bat litro saldu zituen (930.642 litro); hala, EAEko banaketa kanalean saldutakoaren bi botilatatik bat EROSKIren saltegiren batean saldu zen.

Kooperatibak EAEko hogeitahetxerekin dihardu, Euskal Sagardoa eta Gorenak zigiluen 38 bat erreferentzia komertzializatzen, bere marka barne. Gero eta indar handiagoz ari da, gainera, hemengo ekoizpen ehunaren aniztasunaren alde.

"Euskal Sagardoarekin dihardugu 2016an sortu zenetik. Erakunde horrek sagardoa prestigiatzeko lan egiten du, eta elkarrekin berrikuntzak lantzen goaz arlo horretan dela formatu berrie-kin eta dela pre-

mia berrie-kin, ohiko merkatuen alternatibak bilatzeko estrategia sagardo naturala balioan jartzeko", adierazi du EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

"Euskal Sagardoa Jla daraman sagardoa bertako sagarrekin bakarrik egiten da. Sagarraren ekoizpena profesionalizatzen ari dira pixkanaka, sagarrak ahalik eta kalitate onenekoak eta uztak orekatuak izan daitezen eta, era berean, Euskal Sagardoaren kalitatea berma dadin. Horrekin batean, EROSKI bera, banatzailerak den aldetik, funtsezkoa da sagardoaren sektorearen etorkizuna bermatzeko", azaldu du Euskal Sagardoa jatorri izenaren gerenteak, Unai Agirrek.